

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

468

2389/2023 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Mikrobiologiako eta Parasitologiako Fakultatibo Espezialista Mediko Teknikoa kategoria/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 575/2023 Ebazpenaren bidez (martxoaren 29ko EHAA 62. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategoria/lanpostu funtzionaletarako, zeinetan Mikrobiologiako eta Parasitologiako Fakultatibo Espezialista Mediko Teknikoa kategoria sartzen baita, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera arautu da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 23ko 353/2023 Ebazpenaren bidez (apirilaren 14ko EHAA 71. zk.), zeina aldatu egin baitzen apirilaren 20ko 387/2023 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 5eko EHAA, 84. zk.), eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez (irailaren 7ko EHAA, 171. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza argitara eman zen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Mikrobiologiako eta Parasitologiako Fakultatibo Espezialista Mediko Teknikoa kategoria/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 29ko 1597/2023 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Mikrobiologiako eta Parasitologiako Fakultatibo Espezialista Mediko Teknikoa kategoria/lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiarri bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten martxoaren 16ko 575/2023 Ebazpenaren I. eranskineko Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko kategoria/lanpostu funtzionalen zerrendan dagoen Mikrobiologiako eta Parasitologiako Fakultatibo Espezialista Mediko Teknikoa kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Mikrobiologiako eta Parasitologiako Fakultatibo Espezialista Mediko Teknikoa kategoriako destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan onartutakoen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 23ko 353/2023 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Onartzea, baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren bidez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Mikrobiologiako eta Parasitologiako Fakultatibo Espezialista Mediko Teknikoa kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko ziklorako. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 23ko 353/2023 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.–Ebazpenhonen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 23ko 353/2023 Ebazpenaren eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileek, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAA-n destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenean badago.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

I. ERANSKINA

353/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. MIKROBIOLOGIAKO ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU-TEKNIKOA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. MIKROBIOLOGIAKO ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU-TEKNIKOA

Ordena	NAN	Izen-abizenak
1	***8653**	Sota Busselo, Mercedes
2	***9487**	Berdonces Gonzalez, Maria Pilar
3	***4551**	Cano García, María Eliecer
4	***0049**	Rodriguez Achaerandio, Ainara
5	***3696**	Macho Aizpurua, Mikele

2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

II. ERANSKINA

353/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAKULTATIBO ESP. MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. MIKROBIOLOGIAKO ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU-TEKNIKOA

NAN	Izen-abizenak	Baztertzeko arrazoia
***6615**	Arias Alonso, Maria Antonina	Lehiaketan atzera egin du

2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

III. ERANSKINA

353/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA

KATEGORIA: FAK. ESP. MIKROBIOLOGIAKO ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU-TEKNIKOAK

LANPOSTU FUNTZIONALAK: FAKULTATIBO ESP. MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU TEKNIKARIA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***8653**	Sota Bussele, Mercedes	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***9487**	Berdonces Gonzalez, Maria Pilar	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Galdakao-Ukansoloko Ospitalea-Galdakao / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor- / Goizez-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***4551**	Cano García, María Eliecer	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Unibert. Ospitalea-Bilbao / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor- / Goizez-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	2022-10-18
***0049**	Rodriguez Achaerandio, Ainara	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor- / Goizez-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2	2022-10-18
***3696**	Macho Aizpurua, Mikele	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Galdakao-Ukansoloko Ospitalea-Galdakao / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor- / Goizez-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2020-12-15